

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

4135

EBAZPENA, 2024ko abuztuaren 29koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinen bidez Berdintasunaren aldeko 2024ko Emakunde Sarirako deialdia egiten baita.

Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria sortu eta arautzen duen irailaren 12ko 166/2006 Dekretuak ezartzen du sari hori, zeinen xedea baita azpimarratzea eta publikoki aitortzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko lana dela-eta nabarmendu diren pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuen jarduna, emakumeen lanaren aitortzara eta haiek ahalduzera edo sexuen arteko berdintasun-eskubideak eta -aukerak sustatzera bideratutako jarduerak egin baitituzte pertsona horiek.

Deialdi hau bat dator 2024rako Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen 2023ko urriaren 11ko Ebazpenean ezarritakoarekin, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarenarekin.

Bidezkoa da, beraz, deialdi hau iragartzea 2024ko ekitaldirako, aipatutako dekretuaren 1. artikulua aplikatuz.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Deskribatutako helburu guztiak kontuan hartuta, Berdintasunaren aldeko Emakunde Sariaren 2024ko deialdia onartzen da, irailaren 12ko 166/2006 Dekretuaren arabera, bai eta onartzen diren eta ebazpen honi erantsita agertzen diren oinarrien arabera ere.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honetan jasotzen diren dirulaguntzei, honako hauetan ezarritakoa aplikatuko zaie: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako oinarritzko araudia, eta azken lege horren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraz, aurka egiteko, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaioke Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez deza-kete zuzenean, dagokion administrazioarekiko auzien salan, bi hileko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

2024ko irailaren 5a, osteguna

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abuztuaren 29a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria,
MIREN ELGARRESTA LARRABIDE.

ERANSKINA

BERDINTASUNAREN ALDEKO 2024KO EMAKUNDE SARIAREN DEIALDIAREN
OINARRIAK

Lehenengoa.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da Berdintasunaren aldeko 2024ko Emakunde Sariaren deialdia iragartzea. Sari horren bidez azpimarratu eta jendaurrean aitortu nahi da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean egindako lanagatik nabarmendu diren pertsona fisiko eta juridiko publiko nahiz pribatuen jarduna. Saria emango zaie emakumeen lana aitortzen laguntzeko edo emakumeen ahalduntzea hobetzeko zenbait ekintza, lan edo proiektu egin dituztelako edota beren jarduerak nabarmen lagundu duelako emakumeen zeregina balioesten eta duin bihurtzen edo EAeko emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzen.

Bigarrena.– Diru-kopurua.

14.400 eurokoa da sariaren diru-kopuru gordina.

Hirugarrena.– Hautagaitzak aurkeztea.

1.– 2024ko urriaren 7an amaituko da hautagaitzak aurkezteko epea.

2.– Interesdunek bide elektronikoz zein era presentzialean (Manuel Iradier 36, 01005 Vitoria-Gasteiz helbidean) aurkez ditzakete hautagaitzak eta kontsultatu eta izapidetu ditzakete prozedura honetako izapide guztiak, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16. artikuluan aurreikusitako organoetan ere.

Hautagaitzak bide elektronikoz aurkeztu beharko dituzte pertsona juridiko interesdunek eta edozein izapidetarako administrazio publikoekin harremana bitarteko elektronikoz izatera behar-tuta daudenek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikulua ezartzen duenez.

Interesdunek ez dute zertan Eusko Jaurlaritzaren esku dauden datuak eta agiriak aurkeztu. Eskubide horretaz baliatzen direnean, baimena ematen diote Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari datu edo dokumentu horiek dauden organoetatik eskuratzeko. Bitarteko elektronikoen bidez ere baliatu ahal izango dute eskubide horretaz.

Interesdunek egiaztagiri elektroniko onartu bat izan behar dute, prozedura honen izapide guztiak bitarteko elektronikoak erabiliz egin ahal izateko: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Posta-bulegoaren bidez aurkezten diren hautagaitzak gutun-azal irekian jarri behar dira, egiaztatu aurretik posta-zerbitzuko funtzionarioek eguna eta zigilua jartzeko. Hala egin ezean, eskabidea dagokion bulego publikoan noiz sartzen den, egun horretan aurkeztutzat joko da.

Hautagaitzak bide elektronikoz aurkeztu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen: <https://www.euskadi.eus/egoitza> <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0028610>

Eskabideak elektronikoki aurkeztu ahal izango dira ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkari-tza Eusko Jaurlaritzaren Ordezkarien Erregistroan inskribatu beharko da: <https://www.euskadi.eus/ordezkarik>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri daude izapideak aurrez aurre nahiz bide elektronikoz egiteko argibideak, hautagai-eredu normalizatua, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0028610>

Bide elektronikoz egindako eskaeraren ondorengo izapideak «Nire karpeta»ren bidez egingo dira, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Eskabidea izapidetzeko eta agiriak aurkezteko bide bat edo bestea erabiltzeak, hau da, aurrez aurrekoa edo elektronikoa erabiltzeak, ez du behartzen bide bera erabiltzera aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak egiteko, eta edozein momentutan alda daiteke aukeratutako bidea. Legeak bide elektronikoa erabiltzera behartzen badu, ezin izango du besterik erabili.

4.– Euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete eskabidea eta hari erantsitako agiriak pertsona eta erakunde eskatzaileek, nahi bezala. Halaber, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da prozedura guztian, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezartzen den moduan.

5.– Hautagaitzekin batera, hauek aurkeztu beharko dira: gehienez 20 orriko memoria bat; emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiten dela egiaztatzeke agiriak; memoriaren laburpen bat, 2 orrialde baino gutxiagokoa, zeinetan bilduko baitira aurkeztutako hautagaitza sari horretarako egokia izatearen arrazoiak balorazio-irizpideei jarraikiz, eta II. eranskinaren arabera. Hautagaitza pertsona juridikoa bada, emakumezko zein gizonezko kide-kopurua zehaztu behar da.

6.– Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko lana aitortzeko aurkezten diren hautagaiek –erakundeak zein pertsonak– ez dute egon behar dirulaguntza publikoak eskuratu ahal izateko zigor penal edo administratiboren baten edo dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko ezgaitzen duen lege-debekuren baten eraginpean, ezta sexu-bazterkeriagatik zigortuta ere, barne direlarik sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak. Horretarako, I. eranskina bete beharko dute hautagaiek.

Deialdi honetako dirulaguntzak eskuratzeko baldintzetako bat da Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan bildutako debekuren bat ez izatea eta betekizunak konplitzea. Betebehar horiek berariaz, argi eta zehatz egiaztatu beharko dituzte eskabidean eta deialdian aurreikusitako erantzukizunpeko adierazpenen eta mekanismoen bidez.

7.– Beharrezkoa dela iritziz gero, informazio gehiago eska dezake Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak.

8.– Hautagaitza irabazlea zein den publiko egin baino lehen, elektronikoki egiaztatuko da hautagaitza horrek beteak dituela bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan ezarritakoa betez. Hautagaitza onuradunak berariaz uka dezake elektronikoki egiaztatzeke baimen hori (I. eranskina), Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22.4 artikuluekin bat etorritik.

Era berean, hirugarrenen alta egiaztatuko da. Alta hori elektronikoki izapidetu ahal izango da egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen zerbitzuaren bidez: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

9.– Aurkeztu arren sarituak izaten ez diren hautagaitzak errekuiperatu ahal izango dituzte interesdunek, 2025eko otsailaren 28a arte, non eta ez duten baimena ematen hurrengo deialdian aintzat hartuak izateko (I. eranskina). Dena den, administrazioa ez da arduradun egiten epe horretan erretiratu ez diren hautagaitzez.

Laugarrena.– Esleitzeko irizpideak.

Erabakia hartzeko, jasotako hizkuntzan baloratuko ditu hautagaitzak eta/edo lanak epaimahaiak. Irizpide hauek hartuko ditu aintzat, eta haztapena berbera izango da denentzat:

Proposatutako pertsonak izan duen ibilbidea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, non garatu baitu bere jarduna.

Emakumeen lana eta haien ahalduntzea aitortzera edo sexuen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzera bideratutako jardunaren, ekintzen, lanen edo proiektuen berezko garrantzia.

Jardunen, ekintzen, lanen edo proiektuen oihartzuna eta eragina gizartean, edo proposatutako pertsonak egin duen ibilbidea.

Bosgarrena.– Aurkeztutako hautagaitzetan egindako akatsak zuzentzea.

Hautagaitzak behar bezala betetzen ez badira edo eskatutako agiriren bat falta badute, Emakundek falta den agiria aurkezteko edo antzemandako hutsa zuzentzeko eskatuko dio interesdunari, eta horretarako, hamar eguneko epea emango dio jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera. Horrez gain, eskatutakoa egin ezean, eskaera ezetsi egingo dela ohartarazten zaio eskatzaileari; eskaera ezesteko, aurretiaz ebazpena eman beharko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 68. artikuluetan agindutakoari jarraituz (39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

Seigarrena.– Datu pertsonalen tratamendua.

Deialdi honetan parte hartzen dutenen datu pertsonalak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen laguntzak, dirulaguntzak, sariak eta bekak izeneko datuen tratamendurako sartuko dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan xedatutakoari jarraituz.

Arduraduna: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea.

Helburua: bekak, sariak, laguntzak eta dirulaguntzak ematea horiek eskatzen dituzten pertsonen edo erakundeen.

Legitimazioa: interesdunaren adostasuna. Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari esleitutako ahal publikoak erabiliz egindako misio bat betetzeko.

Hartzaileak:

Ogasun publikoa eta zerga-administrazioa.

Interesdun legitimatuak.

Organo judizialak.

Kontuen auzitegia edo erkidegoko baliokidea.

Pertsona onuradun fisikoen datuak EHAAan argitaratzearen ondoriozkoak, kasua bada.

Eskubideak: datu horien erabilera mugatzen da Erakundeak botere publikoak baliatuz egindako misio bat betetzeko sustatutako laguntzak kudeatzeko erabilera eskusibora. Interesdunek datuak

eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, aurka egiteko eta Erregelamenduan aurreikusitako beste edozein eskubide baliatu ahal izango dute. Datuak babesteari buruzko informazioa: [https:// www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/datuak-babesteko-ordezkarria/hasiera/](https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/datuak-babesteko-ordezkarria/hasiera/).

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza gure webgunean kontsulta dezakezu: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/062200-cap2-eu.shtml>

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex%3A32016R0679>).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).